

KANALAK

- **KOMUNIKAZIO KANALAK:**

- Bezeroekin edota bezero segmentu ezberdinekin komunikatzeko, hots nerabe, gazte eta helduak, bai publizitatea bai propaganda erabiliko degu mezua inoiz baino argiago adierazten dituzten poster eta ikusentzunezkoen bidez. Izan ere, aparatu elektronikorenbat eskutara izateak edo ez izateak, ez du gure arteko harremana ostopatuko.

- **BANAKETA KANALAK:**

- Lehenago esan bezala, gure bezeroak 15-35 urte bitartekoak direlako suposatuz, bi segmentu ezberdin ditzazkegu, balio proposamena bakoitzari egokituz.
- Alde batetik, 15-25 urte bitarteko bezeroei dagokion sektorearen posterrak koloretsuak eta sentikorrek izango dira, bertan gaur egungo gizarteko gazteen islada agerian dagoelarik. Ikusentzuneetan berriz, gustoko dituzten musika generoak, challenge edota filmak azladuko dira. Izan ere, gaztea izateak mundua ezagutzeko eta bertatik ikasteko gogoak deskribaezinak dira eta guk hori ederki dakigu.
- Bestetik, 25-35 urte bitarteko helduei egituratutako publizitatea, era batean doterea, lasaia eta egonkorra dela esan dezakegu. Horretarako, bizitzan ditugun kezka eta bete beharretatik at egiteko aproposak izango diren irudiak eta abestiak bertan plasmatuko ditugu. Denok dugu erlaxatzeko momenturenbat edo beste, betidanik ezagutzen ditugun ikusentzunezkoek lekua hartzen dutenak.